

Agiria Gizalegezko Lanaren aldeko 2025eko Egunerako

Barriro be, urriaren 7an, “Eleiza gizalegezko lanaren alde” (EGL) ekimena sustatzen dogun erakundeok bat egin dogu mundu osoko miloeka langileakaz Gizalegezko Lanaren aldeko Munduko Eguna ospatzeko. Egun honetan, oinarritzkoa dan zerbait aldarrikatzea dagokigu: gizalegezko lana nahitaezko eskubidea da, sekula ez pribilegioa.

Mingarria da, 2025ean aurrera goazala, hamarkadetako langile eta gizarte borroken ostean, oraindik ozen eskatu behar izatea laneko oinarritzko baldintzak: soldata duina, lantoki seguru eta osasungarria, ordutegiak eta oporrak errespetatu, genero, jatorri edo egoera administratiboagatiko bereizketarik ez egin... Laneko baldintzen hobekuntzan esku-hartzen daben eragile guztien alkarriketari jarraipena emoteko eskatzen dogu gizalegezko lana lortu arte.

Gaur egun sortzen dan lanak beti ez dakar inklusiorik. Gazteek, emakumeek, adin txikikoak euren ardurapean dabezan familiek eta migratzaileek gero eta arrisku gehiago dabe, lana izanda be, pobretasuna eta gizarte bazterketa jasateko. Bidegabekeria honen aurrean, Frantzisko aita santuak 2025eko Jubileuaren hasieran itxaropenari bizirik eusteko egin euskun deia gogoratuko dogu: *itxaropen eraginkorra* aldarrikatu eban aita santuak, amore emoten ez dauan, bertan behera itzi orde, antolatu, salatu eta aukerak emoten dituan itxaropena.

Itxaropenaren Jubileuan, lan-eremuko egoerarik mingarrienetako baten jarri gura dogu arreta: langile migratzaileena. Behar-beharrezkoa da honako hau gogoratzea: Europako Banku Zentralaren arabera, langile migratzaileak izan dira azken bosturtekoan Espainian izan dan ekonomia-hazkundearen %80aren arduradunak. Langileen %13,6 baino ez badira be, azken urtean sortutako lanpostu barrien ehuneko berrogeitan izan dira protagonista. Ekarpen hau, oster, ez dator bat ez jasoten daben gizarte autorpenagaz ez euren lanpostuaren kalitateagaz, askotan behin-behinekotasuna da-eta nagusi. Ezinbestekoa da migratzaileen ekarpena autortzea eta duin bihurtzea.

Honen haritik, 2024ko apirilaren 9an Diputatuen Kongresuak ezohiko erregulazinarako Herri-ekimen Legegilea aintzat hartzea aho batez onartu ebala gogoratzea komeni da. Urtebeteren buruan, prozesua geldituta dago, duintasunez bizirautea gura dauan ehunka mila lagun ikusezintasunera eta ezkutuko ekonomiara kondenatuz.

Herri honetan bizi garan lagunok, bertokoak izan ala ez, gizalegezko lana izateko eskubidea dogu: gizon eta emakume guztien duintasuna agertzen dauan lana, askatasunez aukeratutakoa, gizarte garapena dakarrena, bereizketa bako errespetua bermatzen dauana, familiaren euskarri dana, antolaketa- eta adierazpen-eskubidea autortzen dauana, oreka pertsonal eta espiritual ahalbidetzen dauana eta erretiroan baldintza zuzenak ziurtatzen dituan (lk. *Caritas in veritate*). Duintasuna emoten, gizartean txertatzen, anai-arreba lez alkar zaintzen, eta itxaropenean eta bat eginda bizitzen laguntzen dauan lana. **Justizia aldarrikatzen dogu. Gizatasuna eskatzen dogu. Gizalegezko lana eskatzen dogu: Eskubidea, ez pribilegioa.**



Manifiesto por la Jornada Mundial por el Trabajo Decente 2025

De nuevo, este 7 de octubre, las organizaciones que promovemos la iniciativa Iglesia por el Trabajo Decente (ITD) nos unimos a millones de trabajadores y trabajadoras en todo el mundo para conmemorar la Jornada Mundial por el Trabajo Decente. Una jornada que nos convoca a reivindicar lo esencial: el trabajo decente es un derecho irrenunciable, nunca un privilegio.

Resulta doloroso constatar que, en pleno 2025, tras décadas de luchas obreras y sociales, aún tengamos que alzar la voz para reclamar condiciones laborales fundamentales: un salario justo, entornos de trabajo seguro y saludable, respeto a los horarios y al descanso, así como la igualdad de trato, sin distinciones por razón de género, origen o situación administrativa. Apelamos a la continuidad del diálogo entre todos los agentes implicados en la mejora de las condiciones de trabajo hasta alcanzar el trabajo decente.

El trabajo que se genera hoy no siempre es camino de inclusión. Jóvenes, mujeres, familias con menores a cargo y personas migrantes enfrentan cada vez mayores riesgos de pobreza y exclusión social, incluso trabajando. Frente a esta injusticia, recordamos las palabras del papa Francisco al inicio del Jubileo 2025, cuando nos llamó a mantener viva la esperanza: una *esperanza activa*, que no se resigna ni abandona, sino que se organiza, denuncia y construye alternativas.

Coincidiendo con el año del Jubileo de la esperanza, queremos poner el foco en una de las situaciones más sangrantes de nuestro mundo del trabajo: la de las personas trabajadoras migrantes. Resulta imprescindible recordar que, según el Banco Central Europeo, las personas trabajadoras migrantes han sido responsables del 80% del crecimiento económico de España en el último lustro. Aunque solo representan el 13,6% del empleo, han protagonizado más del 40% de los nuevos puestos de trabajo creados en el último año. Esta aportación, sin embargo, no se corresponde con su reconocimiento social ni con la calidad del empleo que ocupan, marcado muchas veces por la precariedad. La aportación de las personas migrantes debe ser reconocida y dignificada.

En este sentido, conviene recordar que el 9 de abril de 2024, el Congreso de los Diputados aprobó por mayoría absoluta la toma en consideración de la Iniciativa Legislativa Popular (ILP) para una regularización extraordinaria. Más de un año después, el proceso sigue paralizado, condenando a la invisibilidad y a la economía sumergida a cientos de miles de personas que buscan sobrevivir con dignidad.

Las personas que vivimos en este país, hayamos nacido aquí o no, tenemos derecho a un trabajo decente: aquel que expresa la dignidad de toda persona, es libremente elegido, contribuye al desarrollo comunitario, garantiza el respeto sin discriminación, permite sostener a la familia, reconoce el derecho de organización y expresión, favorece el equilibrio personal y espiritual, y asegura condiciones justas en la jubilación (Cfr. *Caritas in veritate*). Un trabajo que dignifica, que integra, que permite cuidarnos como hermanos y hermanas, y que permite sostener la vida esperanzada y compartida. **Reclamamos justicia. Reclamamos humanidad. Reclamamos trabajo decente: Derecho, no privilegio.**

